

Cultumetría IV Jardunaldia. Uda ikastaroak EHU

Antolatzaileen nota batzuk ekitaldiaren inguruan, hitzaldiak eta eztabaidak bateratuz.

“Kulturaren inpaktu sozialaren neurketa. Laborategia bidea bezala ¿ Eta helburu bezala?” izenarekin, uztailaren 10ean Cultumetría IV jardunaldia ospatu zen, EHUK antolatzen dituen Uda ikastaroen barruan bigarren urtea. Bukagabe dagoen kulturaren neurketaren lanaren inguruan eztabaidatzen jarraitu zen eta baita 2016eko ekitaldian botatako ideia sakontzen: frogatu, saiatu, esperimintatzearen beharra, neurketa arruntetan erabilitako parametroetatik alde egin beharra. Laborategiaren ideia goraipatzea bide eta helburu bezala.

Hazieratik helburu hirukoitza planteatu zuen jardunaldiak:

- Bukagabe dagoen kulturaren neurketaren lanaren inguruan eztabaidatu eta hausnartu.
- Lan-lerro honetan genero begirada bilatzea.
- Laborategia oinarrizkotzat hartzearen ideia sustatzea ikerketa arlo onetan.

Neurketaren ardatz diferenteen arteko desberdintasunak leundu zezaketen bi mahi diseinatu ziren. Begirada desberdinak zituzten mahai inguruak bilatu ziren.

Mahaia 1:

- Aintzane Larrabeiti: Kulturaren Euskal Behatokia
- Jaron Rowan: Irakalslea
- Joxean Muñoz: Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailburuordea

Mahaia 2:

- María Devesa: Valladolid Unibertsitateko irakaslea
- Benito Burgos: Kultur Ministerioa
- Denis Itxaso: Kultura, Turismo, Gazteria eta Kiroletako Diputatua (Gipuzkoa)

Dokumentu honetan jasotzen ditugu hausnartzerako lagin batzuk:

- Rafael Sanchez Ferlosioren “Ver y Mirar” binomioa erabiliz datuak sortu eta interpretatzearen garrantzia, baita ere gure gaitasunen mugak eta nahi izatearen arriskuak. Oni Martín Caparrosek adierazten digun datuen ezer ere ez esan gabe garrasi egiteko gaitasuna gehitu behar zaio, beraz, garrasi horretan geratu bahi ez

badugu zentzua emango dion marko bat ezarrarazi behar zaio. Azken batean datuek titularrak ematen dituzte eta oihartzuna dakartzate. Zer da oihartzun hori lortzen duena eta zergatik da helburua.

- Pentsatzen lagunduko diguten arazoak planteatu beharraren inguruan hitz egin zen. Galileok ilargia ulertzeko gai izan zen margolaria izateari ezker eta ideia hau oso ondo datorkio laborategiaren ideari. Berriro ere gauzei begira gaude baina ez ditugu ikusten. Hausnarketa hau oinarritzko ideia batetik dator: kultura ez dator praktiketatik, eskubideetatik baizik. Bi eskubide nagusiak, sormenarena eta ekoizpenarena [produkzioa] dira praktikak sortzen dituztenak. Estatuak eta erakundeak kale egiten ari dira, asimetriak errazten dituzte eta desberdintasunak ugaltzen. Modu parekide batean ez gaude erakundeetara ailegatzen. komunitate bizitzaren eskubidea aipatu behar da, partekatutako bizitza kultural bat edukitzeko eskubideari buruz. Eskubide hauek bermatzen diete komunitateei bere kideei kultura bermatzeko aukera. Komunitate hauek lekuko sistemari, auzoari, atxikituta daude espazio burujabeak eraikiz. Oinarri honek bere kultura egitea erabaki du estatuak ez delako ailegatzen edo bere interesak ez datozelako bat. Hauek ere laborategiak dira, gauza estetikoak, gauza poetikoak ere baimentzen dutelako. Beste leku batzuetan ezinezkoak diren ezagupenak posible dira bertan, praktika berriak sortzen dira eta subjektibotasun berriak.
- Errealitatearen ezagupenik gabe ezain direla politika serioak egin adierazi zen. Parte bat ezin da neurtu eta beste bat bai. Euskadik konplexutasun berezi bat dauka [Eusko jaurlaritza, Aldundiak, Udalak]. Metodologiak administraritzen arteko partekatutako ezagutza bat izan beharko ziren. Metodologia diferenteeekin sortzen dira darduak eta ezin dira alderatu, analisia saihesten da. Zer da duguna argitzen saiatu behar da. Datuen kultura zabaltzearen beharra.
- Akademiaren ikuspegitik kulturaren neurketarako laborategiaren beharrezkoa da. Ezagupen zehatz bat kudeaketa egokiaren oinarria da. Kultura ikuspegi ekonomiko, kultural, sozial eta ingurunearekikoarekin neurtu behar da. Neurtu behar da baina konplexua da. Neurketa ekonomikoa bere zailtasunak ditu baita eta kulturaren are eta gehiago. Palentziako Aste Santuaren adibidea.
- “Kulturaren dimentsio antropologikoaren espazioan” gaudela ikusi zen. Kulturak bere limiteak puskatzen ditu izateko eran, harremanetan ... honek eraldaketa puntu bat dakar oso saila delako zehaztu eta neurtzea. Hausnarketa baterako atea irekitzen du: kudeaketa publikoa laborategi bat bezala ibili beharko zen. Probatu bai baina plan batekin ez modu ausartegi baten. Saiakuntzak egiteak norberaren barruan ikertzea

dakar, norberarekin eta beste batzuekin ezagutzen ez ditugun gaietan, diziplinarteko lantaldeak eratuz. Ikerkuntzatik hipotesiak sortzen dira, lan-lerroak. Gero hauek frogatzen eta errakuntza bitartez lantzen dira. Laborategi kontzeptuek ez du zentzurik epe laburrean, iraupenik gabe.

- Bukatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ikuspegitik, ¿ kulturaren neurketa beharrezkoa da? galdera proposatzen du. Lehengo zalantza batzuk argitu behar dira neurketaren zergatiaren inguruan. Zergatik guri bai eta beste batzuei ez?. Ez dago gaizki kulturaren esparruan ingurua eraldatzen lagunduko duen neurketa bat jartzea. Mundua oso gaizki dago eta kulturak esku-hartu eta bere papera jokatu behar du. Kulturaren zeregin sozialean zentratu behar gara, kulturak bere paper eraldatzailea joka dezan.

Azkenik bi galdera ireki, eztabaidan jarraitzeko:

- ¿ Non hasiko gara elkartzen konponbideak topatzeko? ¿ Non hasiko gara elkargune hau eraikitzen? Datuek eredu bat eraiki eta elkarrizketa saihestearren arriskua murriztu. Solasaldietarako lekuak ireki behar dira, datuek bidea ez finkatzeko. Prozesuek barrutik zeharkatzen gaituzte, zureak dira, datuak ordea hotsak dira.
- Herritarra erdigunean jartzearen inguruan hitz egiten da, baina kontraesanean, batzarrak beti egiten dira adituen artean.

Holako topaketetan elkar ikusiko garelakoan Alvaro Fierro, Andoni Garaizar, Andoni Lastra eta Aitzol Batiz-en agur bat.